

LH ETA DBH-KO IKASLEENTZAKO MUGIKORREKO FILM LABURREN II. LEHIAKETA – ZER DA LAN DUINA ZURETZAT?

Laneko eskubideak eta, teknologia berriekin fusionatuta, gaitasun artistikoak bultzatzeko asmoz, eta irudiak jasotzeko tresna gisa mugikorraren erabilera arrazionala eta artistikoa bultzatzeko helburuarekin, Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak LH ETA DBH-KO IKASLEENTZAKO MUGIKORREKO FILM LABURREN II. LEHIAKETA – ZER DA LAN DUINA ZURETZAT? izeneko deialdia egin du. Deialdia ondoren ageri diren oinarriek arautuko dute, eta objektibotasuneko, publizitateko eta lehiaketa askeko printzipioak betetzea izango da horien helburua.

OINARRIAK:

A. PARTE-HARTZAILEAK:

A1.- 2015-2016 ikasturtean LH edo DBHko edozein mailatan dauden ikasleek hartu ahal izango dute parte.

A2.- Egile edo egile talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Teknika askea izango da eta istorio osoak izango dira, originalak, argitaragabeak eta beste lehiaketetan saririk jaso ez dutenak.

A3.- Lehiaketako gaia hau da: zer da lan duina zuretzat? Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izango dira.

A4.- Bideoek hiru minutuko iraupena izango dute gehienez, originalak izango dira eta telefono mugikorreko kamerarekin edo argazki-kamera digitalarekin soilik grabatu ahal izango dira eta, nahi izanez gero, ondoren kanpoko baliabideekin editatu ahal izango dira. Lanak formatu hauek izan ditzake: 3GP, 3GPP, MP4, MPG, SMV, FLV, SWF, AVI, MOV eta MKV.

B. BALDINTZAK:

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek arau hauek bete beharko dituzte:

- a) Lehiaketara aurkeztutako mugikorreko film laburrak pazsolidad@euskadi.ccoo.es helbidera igorri beharko dira edo euskarri digitalean entregatu beharko dira (CDa, Pen Drive-a eta abar) Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioaren egoitzaren bulegoetan honako helbide honetan: Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbo, Bizkaia.
- b) Film laburrekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. NANaren, egoiliar-txartelaren edo errolda-txartelaren fotokopia, A Oinarrian xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.
2. Istoriotxoaren izenburua.
3. Egilearen izen-abizenak.
4. Harremanetarako telefonoa.

(Dokumentazioa modu digitalean bidali ahal izango da film laburrekin batera edo bulegoetan entregatu ahal izango da).

Lanak hobeto baloratu ahal izateko interesekoa izan daitekeen beste edozein dokumentazio entregatzea hautazkoa izango da.

C.- IZEN-EMATEAK

C.1.- Eskerak aurkezteko epea **2016ko urriaren 1ean** hasi eta **2016ko abenduaren 30ean** amaituko da (bi egunak barne).

D.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak izendatuko du eta 4 lagunek osatuko dute. Horietako bi Fundación Paz y Solidaridad - Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioko Hezkuntza taldeko bi kide izango dira eta gainerako biak Euskadiko CCOOren Konfederazio Gobernuko ordezkariak izango dira.

E.- EPAIA

Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak parte-hartzaile guztiei 2017ko **urtarrilaren 10ean** jakinaraziko die epaia. Horretarako, zerrenda webgunean jarriko du eta irabazleei telefonoz dei egingo die. Epaimahaiak aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela erabakitzen badu, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Erabakia apelaezina izango da.

F.- SARIA

2017ko urtarrilan egingo da sari- eta diploma-banaketa, Bakea eta Elkartasuna fundazioak antolatutako IV. zinema-zikloan.

Aurkeztutako lan guztien artean, epaimahaiak editatu eta unitate didaktikoan jasoko diren lanak hautatuko ditu.

Aukeratutako film laburren artean, hiru lan sarituko dituzte eta horientzako sariak **600, 300 eta 100 €-koak** izango dira, hurrenez hurren. Zenbateko horietatik indarrean dagoen zerga arloko legeriaren arabera dagozkien atxikpenak kendu beharko dira.

G.- FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD EUSKADI-BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOAREN BETEBEHARRAK

G1.- Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak honako hauek betetzeko konpromisoa hartuko du bere gain:

- a) Sarien esleipenaren zein horien erakustaldiaren inguruko publizitate mailako hedapena egitea jarduerak hedatzeko erabili ohi dituen bitartekoak erabiliz.
- b) DVDeren bildumena egokitzat jotako lanekin editatzea; artista parte-hartzaile bakoitzari horren ale bat entregatuko dio.

G2.- G.1 b) puntuan xedatutakoa betetze aldera, Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak, publizitate-materialen editore moduan, bere gain izango du entregatzen zaizkion film laburrak zabaltzeko, mozteko edo aldatzeko eskubidea lan hori prestatzeko.

H.- AUKERATUTAKO LANEN EGILEEN, FINALISTEN ETA SARIDUNEN BETEBEHARRAK

- Aukeratutako egileek, finalistek eta saridunek egokitzat jotako eran erabili ahal izango dute film laburra, baldin eta Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna fundazioak 2016. urtean LH eta DBHko ikasleentzat antolatutako Mugikorreko film laburren I. Lehiaketan lortutako kalifikazioa zehazten badute.

I.- BESTE XEDAPEN BATZUK

I1.- Oinarri hauetan aurrez ikusi gabeko edozein gertaera edo horren interpretazioaren inguruko edozein zalantza Fundación Paz y Solidaridad Euskadi-Bakea eta Elkartasuna Fundazioaren irizpideen arabera ebatziko du hark izendatutako epaimahaia.

I2.- Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauetan bildutako xedapen guztiak onartzea dakar berekin.